



Iturria: *Teatro osoa euzkeraz (I)*, Antonio Labayen.  
La Gran Enciclopedia Vasca, 1976.

Klasikoen Gordailuan:  
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/L/LabaienGaltzaundi.htm>

## **GIZON BIZARPEITUTI ETA EMAZTE BIZARTSUTI...**

**Antonio Maria Labaien**

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

**GIZON BIZARPEITUTI  
ETA  
EMAZTE BIZARTSUTI...**

**(jostirudia)  
(BI EKITALDITAN)**

1935 — TOLOSAN.— LOPEZ MENDIZABAL-ENEAN

**ANTZEZ-LAGUNAK**

**BIZARGILLE:** Erri txiki bateko bizar kentzaella.

**MUTILLA:** Bertan ikasten ari dan morroitxo.

**AUNDI-MANDI:** Zaldun eta beti-agintaritakoa.

**KAXKARIN:** Erriko alperrena, sasi-pelotaria.

**JOXE-IGELTSU:** Bizar luze, zuriduna. Langille zintzoa.

**ETXEKOANDRE:** Sudurpean emakumezkoak oi duten illea baño geixeago.

Joxe-Igeltsuren emaztea.

**MIRABE:** Neskatxa polit bat.

**GERTAERA:**

Antziñan, nun eta noiz asmatzen errez ez dan egun batez....



## ITZAURREA

### Jostirudia

Euskal teatroaren aztarrenak billatzen gabiltzanoi gero ta geiago azaltzen ari zaizkigu eredutzat artu ditezken gaiak. Lenago ajola gutxi ematen genien oitura, jolas, zeizen eta atsoitzetan dago antzerkiaren ernemiña. Errian sakabanatuak dauden apurrak bildurik, komeri euskaldunak egin ditzagun, au da nere asmoa. Lantxo onek jostirudia deritza Marzelino Soroaren «Abek istilluak», «Gorgonioren estutasunak» eta Toribio Alzagaren «Aterako gera» omen eta oroiz. Euskal komeri bideak donostiar jator oiek urratzen asiak baiditugu; ta beren lanak *jostirudi* izen ortaz deitu zituzten. Soroak kale arteko euskera «*mea*» besterik ez bazekien, Alzagak geroztik, errian barrenduaz «Bost urtean», «Biotzberak», «Neskazarra» ta beste antzerki eder batzuek idatziak ditu. Irritsuak geienak. Onelako lantxoak par eta jolaserako besterik ez dirana-ta ez bitza orregatik iñork baztertu.

Moliererek ere, il baño bi urtez aurretik bere antzerki goitarrenak sortuz geroz, «Les Fourberies de Scapin» (Eskapinoren maltzurkeriak), itxuraz kirtenkeri utsa dan komeria moldatu zuan. Garai artako Boileau

«Dans ce ridicule ou Scapin s'enveloppe,  
Je ne reconnais pas l'auteur de Misanthope».

ta jakintsuen gogoko ez izanagatik gerora «Eskapinoren maltzurkeriak» bide egin zuen. Moliereren lanetatik geien bat antzeztu dan antzerkia izango da. Irri ta parraren sena erri txeak gordetzen du ondoenik. «Escapino» «xelebre» ori Moliererek italiarren «*commedia dell'arte*»tik artua zuen; ta italiarrak berriz Terencioaren «Phormion» eta antzeko komerietatik ikasiak zituzten alako kirtenkeriak.

Izan ere parbide ta jolasak iturri batetik edo datoz; giza-biotzaren argalkeri ta biziaren gora-beretatik, eta auek betikoak dira.

Emen eskeintzen dizutedan *jostirudi*, farsa dalako au josteko aukeratu nuen gaia oso da arrunta; ezin-da errikoia. Lenengoz idatzi izan nuen komeritxoa dezute. Amabost urte igesi joan dira ordutik. Kutunena izaki nunbait eta maite det geroztik sortu ditudan antzerki guziak ez bestela. Orain, berriro, argitaratzeko asmoz irakurritakoan utsegite askotxo arki dizkiot ordea, ta oker batzuek zuzendurik, antzezlagnu batzuen jarduna zerbait aldatu bearra izan det. Izena ere bai, onoko au ipiñirik!

«*Gizon birzarpeituti eta emazte bizartsuti*»...

Oihenarteren atsoitzaren arabera bukatuaz

«iges egik nola kutsuti»

esaera zaar onek egokienik nere antzerkitxoaren muña azaltzen duala deritzaidalako.

Guzia joku, jolas kirtenkeri utsa da, antzezlariak umore ta aldarte onean antzeztu bear dutena. Jantziak ere alako moztorro-soñeko margoargiak nai litezke antzezlaria agertu utsaz par egiñarazten dutenetakoak. Antzerki onen itz-jarduna errez eta laburra dalako buruz oso ondo ikasi bear da, elkar-izketak zalantzik gabe esan onela egipen, ibillera ta joku guziak, garaiz eta bizi tajutuak izan ditezten.

Azkenik antzerki au euskal gizataldeai atsegin on zindo eta ume pozgarri batzuek ematera iritxi baledi ez luke egilleak beste ordañik nai.



## I. EKITALDIA

*(Erri txiki bateko erdi bizartegi ta erdi ezpartzin denda. Barrendik ikusi ala igarriko zaio, nagusia, ez dala geiegi saiatzen ez lagintza batean eta ez bestean. Alde batean apalak espartzin batzuekin eta lagintza onetarako bear izaten diran tresnak. Bestean ixpilu aundi bat ormatik isegita; onen pean, oso naste-borraste: bizar-laban, orrazi, guraize, zurdaki, ontzi ta abar. Bearrezko dira bi besaulki ta ontzi bat intxaurrez betea agertzea).*

## LENENGO AGERRALDIA

*Bizargille ta Aundi-Mandi*

**BIZARGILLE:** *(Aundi-Mandiren arpegari besaulkian dagola azken ikutuak ematen ari zaiolarik)* Esango nuke. Jakiña! jakiña, jakiña! Bai ba. Baietz gizona! Bai jauna bai!

**AUNDI-MANDI:** Zuk guziari baietz esaten diozu.

**BIZARGILLE:** Nere lantegia alakoa baita.

**AUNDI-MANDI:** A! Figaro, Figaro!

**BIZARGILLE:** Pikaro?

**AUNDI-MANDI:** Alatsu.

**BIZARGILLE:** Ori da ezizenak jarri naia. Bizargille ta ezpartzingille: bietan zure menpeko.

**AUNDI-MANDI:** Bietan ez, batean. Ni añako zaldunak badakizu ez dutela alperjetarik jazten. Zu noski, baserritar, errementari, arotz eta onelako jende txearekin oituta zaude.

**BIZARGILLE:** Jende txearekin ta aundi-mandiarekin. Jauna, ni beti zure mende. Bizarrekikoa egin dizut. Itxoin. Aoa pixka bat zabal ezazu. *(Intxaur bat sar bezaio).*

**AUNDI-MANDI:** *(Zalapartaz jaurtiaz)* Zer da au?

**BIZARGILLE:** Intxaurra jauna! Paristik etorri dan azkeneko moda.

**AUNDI-MANDI:** *(Txistua botiaz)* Ez al zenun txikiagorik?

**BIZARGILLE:** Urra sartuko dizut, jauna. *(Ur bat sar bezaio).*

**AUNDI-MANDI:** Au beste gauza bat da.

**BIZARGILLE:** Orain autsak?

**AUNDI-MANDI:** Autsak?, emakumezkoaren gauzak.

**BIZARGILLE:** Arrazoi dezu: emakumezko txoro ta ergelen apainketak, bañan gizonezkoak aien atzetik.

**AUNDI-MANDI:** Ez ni beintzat! *(Besaulkitik jeikitzen asiaz)*

**BIZARGILLE:** Zaude peluka jarri bitartean *(Apalean dagon peluka artu ta buru-solla estali bezaio).* Onelaxe! gertu zaude!

**AUNDI-MANDI:** Nola bizi naizen badakizu: paketsu, pozik, nere buruaren jabe. *(Zutituaz)*

**BIZARGILLE:** *(Alboan)* Illea besterena dek-ba. *(Jantziak antolatzen lagunduaz)* Ala obe.

**AUNDI-MANDI:** Onuzkero era ortan ikusiko nazu beti, baita Josefateko zelaian ere: lasai, bakarrik.

**BIZARGILLE:** Ederki! *(Albora)* Mendi artan eta bakarrik? Erruki zaitut.

**AUNDI-MANDI:** Emakumeen atzetik...?

**BIZARGILLE:** Atzetik baño, albotik edo besotik obe.

**AUNDI-MANDI:** Nai duanarentzat.

**BIZARGILLE:** Aukera balego...

**AUNDI-MANDI:** Ba al dakizu alkate izan nintzan garaiean zer izan zitzaidan atsegiñena?...

**BIZARGILLE:** Ez da asmatzen erreza. Ez bai naiz beñere malla ortara irixi. Bañan nik uste agintzea izango zala.

**AUNDI-MANDI:** Ez gizona. Ostegun santuko prozezioan erriko andre guziak nere atzetik joatea.

**BIZARGILLE:** Ez dago gaizki *(Par egiñaz)* Bultzako zizuten ederki.

**AUNDI-MANDI:** Bai zera! Zigorrarekin bai ninjoan.

**BIZARGILLE:** Ez zegon leku txarrean zigorra. Orain ere erriak obe luke zu baziña alkate.

**AUNDI-MANDI:** Ez, ez. *(Sakaletik dirua ateriaz)* tira, or dezu ordaña. *(Iru txanpon zar soñua ateriaz mai gañera botiaz)* Bat! bi! iru!

**BIZARGILLE:** Eskerrikasko! millesker! eskerrak anitz!

**AUNDI-MANDI:** *(Ateruntz joanez)* Nerekin ondo etortzeko itz gutxi Figaro! *(Itzuliaz isillago)* Ez iñori esan pelukik daramadanik.

**BIZARGILLE:** Zoaz kezki gabe, jauna. Gor et mutu naiz bear dan lekuan.

**AUNDI-MANDI:** Ez dakit ba... Botikako berritsutokian isillik. *(Dijoalarik)*

**BIZARGILLE:** Ez dago beldurrik jauna. Kaputxinotako bi urtean ikasia naiz: beste bian Baionan sinagoga ondoan mutil egona; beste orrenbeste Donostian bigote politenak kixkurtzen eta azkenik Axkoitian alprejetako txirikordak biurtzen.

**AUNDI-MANDI:** Guzietatik ikustea on da. Gizarteko zera.



**BIZARGILLE:** Gizarte... ta bizartekoa... Gorostian gorosti... Donostian Donosti...

**AUNDI-MANDI:** Ba, ba, ba. Erri txearen esaerak. Ez nazu bizartegita ama-bostean bein etortzen danetakoa. (*Joanez*) Ez nuen iru eguneko bizarra besterik.

**BIZARGILLE:** Eta nolako bizarra gañera. Zedazkoa zirudin; aingeru illea.

**AUNDI-MANDI:** Igande arte. Astean bi bider etorriko natzaizu.

**BIZARGILLE:** Egunero daude zuretzako atek zabalik. Ez zaizu damutuko nere etxea etortzen asia. (*Ateraño lagunduaz*) Zoaz ondotxo jauna! (*Aundi-mandi bijoa*)

## BIGARREN AGERRALDIA

*Bizargille bakarrik; gero Mutil.*

**BIZARGILLE:** Aundimandi joan dek. Ori «Aundi-mandi» ezik, «Zur aundi» ere badek. (*Txanponak eskuan arturik*) Bost kuarto zikin besterik utzi ez! Alderdi ederra zeukat bizar laban berriak erosteko! Akatzez beterik zeudek gaxoak! (*Txanponak jaurti ta bizar-labana eskuan leunduaz*) Ai nere sakela! (*Berriz txanponak jaso ta sakelean sarturik*). (*Arrausi egin ondoren orman dagon egutegiari begiratuaz*) Gaur osteguna. Eskoliek ez. Astean gutxienez bi jai bear litekek... Onuzkero ez dek onuntz etorriko ez animarik... eta et bizarrik. (*Bere buruari*) Bizargille! Goazemak! goazen! botika aldera, an gizon bikañak biltzen gaituk-eta. Paper ederrik ez badiat egiten ba. Edozeñek esango likek tolosarra naizena eta ez Mandubiokoa. (*Deituaz*) Txomin! Txooooo!!

**MUTILLA:** Zer nai du nagusia?

**BIZARGILLE:** Zera... denda ire esku uzten diatela.

**MUTILLA:** Ondo dago.

**BIZARGILLE:** Bai noski! Ondo, i bakarrik geldituta ontziko intxaurrek jateko.

**MUTILLA:** Ez jauna ez!

**BIZARGILLE:** Beok gero! Zortzi ale uzten dizkiat... Koutuz! Aurten bigarren lakaria zeramakiagu.

**MUTILLA:** Bai jauna bai!

**BIZARGILLE:** Baietz esaten dek... Emonio! Eorrek janak! (*Dijoaja itzuliaz*) Zaldunen bat azaltzen bada emen, baatorke...

**MUTILLA:** «Xanuke, ta xanuke, muturke ta muturke» (*Abesturik*)

**BIZARGILLE:** (*Asarre antzean*) Zera! Bizar kalabera! (*Atetik*) Baatorke tximista egiñean botikara neri deitzera.

**MUTILLA:** Agindu bezela egingo det.

**BIZARGILLE:** Eta arlote orietakoren bat baldin bada, antolatu adi al dekan eran.

**MUTILLA:** Olakoai nik kendu bear al diet bizarra?

**BIZARGILLE:** Bai, bañan bizarra besterik ez; ez belarri, kokotz ala ezpain erdia. Au ez dek arakintzan egiteko lekua.

**MUTILLA:** Ez baidet beñere bizar-labanik eskuan artu.

**BIZARGILLE:** Intxaurrek artzen dituk ba. Oraingo mutillak ez dezute balio jaten dituzuten intxaurrek ere. Ire urtetako gizon bati illea moztu nintxoan txapelik kendu arazi gabe.

**MUTILLA:** Buru-solla izango zan Aundi-Mandi jauna bezela.

**BIZARGILLE:** Ago ixillik lotsagabea! Badakik ire egin bearra. (*Bijoa*)

## IRUGARREN AGERRALDIA

*Mutilla ta Kaxkarin.*

*(Nagusia ezkutatu orduko Mutillak bi intxaurrek ontzitik artzen ditu. Oin azpian, zapaltzen ditu gero azalak kendu ta mamiak jan bitza. Ontan ari dala norbait datorrela antzematen dio ta zalapartaka azalak gordetzen saiatuko da).*

**KAXKARIN:** (*Sarturik*) Orain ere iñor ez? Beti zai egon bear al degu? (*Mutillari*) Nun dek nagusia?

**MUTILLA:** (*Aoa intxaurrez betea duala oraindik*) Lanez josita!

**KAXKARIN:** Ire aoa bezela. Ire nagusiaren lana berriz alperkeria. Ez dik bizartegiak azpian arrapatuko.

**MUTILLA:** (*Berekiko*) Nor ote degu langille amorratu au?

**KAXKARIN:** Zer ari aiz or marmaizuan?

**MUTILLA:** Zeorrek ere ez dezula lan aundirik izango.

**KAXKARIN:** Lana? Ez al dakik zer nolako pelota-partidua dan gaur errian (*Zematuaz*) Ematen badiat!



**MUTILLA:** Ba nere nagusia «Kalpar-Lu enera» joan da illea moztutzero; gero andik Bikaio jaunaren etxea joateko asmotan.

**KAXKARIN:** Esaten ditun gezurak aitortzero. Iri ere ondo erakutsi dik lezioa.

**MUTILLA:** Bai jauna! Oso ederki. Eseri nai badezu. (*Besaulkia eskeñaz*) Bizarra kenduko dizut.

**KAXKARIN:** Ik? (*Asarre*) Ume koxkor lotsagabea! Ausartu ere! (*Jo naiez*) Ua Botikara tximista egiñean eta esan akiok nagusiari etortzero. (*Ostikoa jaurtiaz*)

**MUTILLA:** Ai! (*Igesi abituaz*).

**KAXKARIN:** Ai ez. Esan akiok beriala, beriala etortzero. Gero partidua jokatu bear dedala.

**MUTILLA:** Ezin utzi det denda bakarrik, ordea.

**KAXKARIN:** Ni ez al naiz iñor? Aguro ez baoa! (*Beste ostikoa emanik*).

**MUTILLA:** (*Igesi*) Ai! Ai! Banoa!

**KAXKARIN:** Ezta lapurra banintz ere. Toki onera etorriko niñuan ostutzero.

**MUTILLA:** (*Atetik*) Ez intxaurrik ikutu.

## LAUGARREN AGERRALDIA

### *Kaxkarin eta Joxe-Igelsu.*

**JOXE-IGELTSU:** (*Sartuaz*) Arratsalde on!

**KAXKARIN:** Ongi etorri.

**JOXE-IGELTSU:** Ea pixkan bat garbitzen ote gaituzten edo...

**KAXKARIN:** Itxoin bearko dezu adiskide.

**JOXE-IGELTSU:** Lenago ere oitua nago. Ez da luzeiriztekoa: biok besterik ez gera-ta.

**KAXKARIN:** Bai bizargillea emen balego.

**JOXE-IGELTSU:** Etorriko da. Ez da urruti izango. (*Eseriaz*).

**KAXKARIN:** Ori da gizonaren gibela.

**JOXE-IGELTSU:** Zer egingo dezu bada?

**KAXKARIN:** (*Zirikalari*) Bai egia da: edozein gauza, daramakizun bizarra arpegian eramatea baño lenago.

**JOXE-IGELTSU:** Adi zazu. Makiña bat alditan bururatu zait bizarra kentzea. Ez balitz jendearen esamesengatik onuzkero garbitu nuan.

**KAXKARIN:** Jendeak geienaz esango lukeana: gaztetu egin zerala, izango litzake.

**JOXE-IGELTSU:** Gezur ori egi balitz... Gaztetzeko bearrean nago.

**KAXKARIN:** Zenbat urte dituzu bada?

**JOXE-IGELTSU:** Zenbat ematen dizkidazu?

**KAXKARIN:** Ez dakit baño... nola nai irurogeitik gora...

**JOXE-IGELTSU:** Eskerrikasko. Ez orrenbeste. Ez ditut berrogeitamar urte besterik (*Asarre*)

**KAXKARIN:** Ez det errurik. Zere bizarrak ematen dizkitzu amar urte geiago. Ta gazte izanagatik, zar itxura.

**JOXE-IGELTSU:** Ala ateratzen zait-eta...

**KAXKARIN:** Errezago moztutzen da ateratzen dan baño...

**JOXE-IGELTSU:** Bizi guztian onela oitua natzaizu-ta...

**KAXKARIN:** Ez dakit zure lagintzarako nola ez dizun galerazten. Beti kare ta auts artean ibilli bear eta.

**JOXE-IGELTSU:** (*Aserratzen*) Bearko. Ez zu bezela alperkerian.

**KAXKARIN:** Ainbat gaixtogo zuretzat... Nik onuzkero bizarra kendu nuen ta kito!

**JOXE-IGELTSU:** Ondo ari zera. Ez du ala uste nere andreak.

**KAXKARIN:** Nik ez det andrerik baño iruditzen zait senarra gazte ta garbi ikustea atsegin izango zaiola.

**JOXE-IGELTSU:** Galde egin bearko diot.

**KAXKARIN:** Ez lizuke ezezkorik esango. Onela, gañera, sagardotegiko illeartzeak bukatuko zenitzaizuke; batek ziri ta besteak zotz....

**JOXE-IGELTSU:** (*Asarre*) Egunen batean etengo zait eramankizuna ta orduan... ikusiko degu nork deitzen nauen Matusalen eta Matusalen ondo...

**KAXKARIN:** Ortara iritxi baño lenago bizarra kentzea obe dezu. Bestela, berriz ere... Matusalen eta... «Kalparluze»...

**JOXE-IGELTSU:** (*Errea*) Ez didate berriz ez, izengoiti ori arpegira esango.

**KAXKARIN:** Ez noski arpegirik garbitzen badezu.

## BOSGARREN AGERRALDIA

### *Lengoak eta Bizargille.*

**BIZARGILLE:** (*Laisterka sartuaz*) Atatsalde on jaunak!



**KAXKARIN:** Zuk obeak guk baño.

**BIZARGILLE:** Zer? luzaroan itxoin arazi al dizuet?

**KAXKARIN:** Itxoin? Illea ere luzatu zait, lendik gañera, orrenbeste itxoin bearrez.

**JOXE-IGELTSU:** (*Kaxkarinengatik*) Onen ergelkeriak. Ez degu egin etortzea besterik.

**BIZARGILLE:** Banengon ba. (*Kaxkarinengatik*) Au andaluzitarra baidegu. Alegi tristekoa.

**KAXKARIN:** Bai Giputzen Sebillakoa: txintzarri errikoa.

**BIZARGILLE:** Ez dezagun astirik galdu. Isillik! Txintzarri.

**KAXKARIN:** Ederki zio! (*Bizargilleari*) Zu etxetik kanpo ta errua nere!

**BIZARGILLE:** Tira! nor zaituet lenengo: emen nago gertu lanerako.

**KAXKARIN:** Bai gu ere, emen gaude aspaldian. Ez al da ala Joxe? Bere bizar zuri orretzaz jardunean ari giñan.

**BIZARGILLE:** Bizar ederra!

**KAXKARIN:** Bai ondo zaindu ta apaindua baleuka.

**JOXE-IGELTSU:** Orretarako ere beta bear.

**KAXKARIN:** Orixe bera esaten ari nintzaion.

**JOXE-IGELTSU:** Berriketa gutxi.

**KAXKARIN:** Berriketa ez. Ille ta bizar zuri oiekin agurea dirudizula.

**BIZARGILLE:** (*Pakezale*) Joxe ez da zarra oraindik. Irurogei urteren bat...

**KAXKARIN:** Berrogei ta amairu besterik ez, gizona!

**JOXE-IGELTSU:** Ori da ni zirikatzeke gogoa dezutena.

**BIZARGILLE:** Benetan, Joxe, urte geiago ematen nizkitzun.

**JOXE-IGELTSU:** Zuek biok baño lan geiago egiña bainaiz.

**BIZARGILLE:** (*Kaxkarini*) Zer bait esan digula uste diat. Bigarren aldiz esan aurretik, lanean asi nadin. Zein zerate aurren?

**KAXKARIN:** Nere txanda uzten diot Joxeri. Gu baño langille fiñagoa dala aitortu bear. (*Joxeri*) Eseri, eseri. Zure tokian banengo beti igeltsu ta kare tartean, bizarra zikinduta, onuzkero arpegia aspaldi garbitu nuen.

**JOXE-IGELTSU:** (*Alkian eseriaz*) Itxura onean geldiko nintzake.

**BIZARGILLE:** Adi zazu adiskide: ez dakit bein edo bein ez ote didazun entzun orain urte asko gerta zitzaidana.

**KAXKARIN:** Ez zan izango Mandubion...

**BIZARGILLE:** Ez Vesubion izan zan.

**JOXE-IGELTSU:** Ori ez dago Matxinbentan?

**BIZARGILLE:** Ez, «lapur bentan!» Egun batez nun agure itxurako bat agertzen zaidan. Ille ta bizar zuriduna bera. Bizartegian

sartu ala esan dit bere burua itxura onean jarri nai lukeala: alegia bizarra zearo kentzeko. Bai?, ala, guaizeak ta bizar labana artu ditut eskuetan ta (*Lan antzean*) ra, ra, ra, igarri orduko bizarra garbitu nion. Buruko illea berriz, neronek egiñiko ukendu batez beltzago gelditu zitzaion ikatza baño...

Gizon ura ain gazte ta arin atera zan bizartegitik, nun andik amabost egunera jakin det ogeita bost urtedun neskatxa eder batekin ezkondu zala.

**KAXKARIN:** Erregeak ikusi izan balu...

**JOXE-IGELTSU:** Nere emazteak baleki.

**BIZARGILLE:** Nik ez det aserrerik jarri nai senar-emazteen artean. Ura ezkongai zan: amerikano bat. Guziok arriturik gelditu ziran nola irten zan. Zu gazteagoa zera-ta.

**KAXKARIN:** Eseri zaitte beldurrik gabe.

**JOXE-IGELTSU:** Beldurra...

**BIZARGILLE:** Beldurra? Au ez da agiñak ateratzea gizona.

**KAXKARIN:** Beraz; andamiotan eta tellatu gañean aureskua ateratzen dun gizona.

**JOXE-IGELTSU:** Egizu nai dezuna ba. Zer arrai!

**BIZARGILLE:** (*Zapia lepoan lotuaz*) Ederki jarriko zaitut, gizona. (*Mutillari*) Txo! Katillukada ur bero. Azkar! (*Mutilla billa doa*)

**KAXKARIN:** Nik ere lagunduko dizut. (*Oso era irrisuan eta zalapartan Bizargilleari, orrazi garaize, zurdaki ta abar eramanik*) Ez dezu zere bururik ezagutuko.

**BIZARGILLE:** Baten ordez bi morroi al ditut? Au da lanean ikusten zaitudan lenengo aldia.

**KAXKARIN:** Ori eskerrak emateko itxura.

**BIZARGILLE:** (*Lanari darraikiola*) Kontuz e? Lagintza au ez da pelotan jokatzeko. Esku ona ta jakituri aundia bear dira zuk ez uste arren.

**KAXKARIN:** Ori det ba nik ona: ezker-eskua.

**JOXE-IGELTSU:** Ez ditzala nere arpegiak zartako guziak artu.

**BIZARGILLE:** Legun nabiltzazu.

**KAXKARIN:** (*Mutillari eskuan dakarkin ur-bero katillua kendurik*) Emaidak!

**MUTILLA:** Zu ez zera nagusia!

**BIZARGILLE:** Umeak isillik!

**JOXE-IGELTSU:** Zertan ari gera?



**BIZARGILLE:** Txit ondo. Itxoin! itxoin! (*Zurdakiaz arpegja bustiaz*) Bizarra gogortxo baidago.

**KAXKARIN:** Izoztua ere. Noiz utzi zendun bizarra?

**JOXE-IGELTSU:** Ezkondu nintzan urtean.

**KAXKARIN:** Bada ez bada gizon ezkonduak matralla ondo gorde bear du.

**BIZARGILLE:** (*Aopear*) Ez zaiozula ori aitatu orain.

**JOXE-IGELTSU:** Berriketa asko dezute bion artean, bitartean ea arpegia larrutu didazute.

**BIZARGILLE:** Ez kezki izan. Okerrena egin degu.

**JOXE-IGELTSU:** Okerrena?...

**BIZARGILLE:** Laister dago amaitua.... Gizon dotorea ez bazera gelditzen bada. (*Nola-ala sasi-bizarra kendu bezaiole*).

**KAXKARIN:** Ikusi gabe ezin sinistu alakoa.

**BIZARGILLE:** (*Lana amaituaz*) Ikusi zaite, ikusi ispilluan.

**JOXE-IGELTSU:** (*Pizka bat zutiturik*) Ikusi nadin bada.

**BIZARGILLE:** E? Zeorren seme dirudizu.

**KAXKARIN:** Baita billoba ere!

**JOXE-IGELTSU:** (*Damututa*) Ez dakit zer arraio egin didazuten.

**KAXKARIN:** Gizon bikaña biurtu.

**BIZARGILLE:** Ori da berritze, gaztetzea...

**JOXE-IGELTSU:** Ondatzea!

**BIZARGILLE:** (*Eseri araziaz*) Zaude isillik gizona. (*Mutillari*) Oa sukaldera ikatz puzka baten billa! Azken ikutua besterik ez zaizu palta.

**KAXKARIN:** Au dek au! Alkate izateko moduan zaude.

**JOXE-IGELTSU:** Ni beti igeltsero.

**BIZARGILLE:** Itxoin! itxoin! (*Mutillak ekarri dion ikatz puskakin illea bes-tuaz*).

**KAXKARIN:** Orain igeltsero baño ikazkin geiago dirudizu.

**JOXE-IGELTSU:** Aski det!

**BIZARGILLE:** (*Lepoko zapia kentzen diola ta oso koipejario*) Jauna, ni zure mendeko: otseindua zaude.

**JOXE-IGELTSU:** (*Alkitik jeiki az, zearo arrituta ta aoa zabalik ispillura begiratirik*) Ni ez naiz ni!

**KAXKARIN:** Jakiña!

**BIZARGILLE:** Ori da alkian eseri ta ogeitamar urte gutxiagoz jekitzea.

**JOXE-IGELTSU:** Au amets bat da. Ta etxean ez banaute ezagutzen?

**BIZARGILLE:** Ez orrenbeste!

**KAXKARIN:** Etxean ez dakit, bañan, edozeñi apustu egingo nioke auzoko sagardotegiko Iñaxik ezetz ezagutu. Ori bizartegira sartzen ikusi dualarik.

**BIZARGILLE:** Ezagutu? Bai...

**KAXKARIN:** Ezetz! Badijoa irurentzako bixigu jatea!

**BIZARGILLE:** Egiña! Badijoa! Kafe ta guzi gañera. Ez al da ala Joxe?

**JOXE-IGELTSU:** (*Au oraindik aoa-zabalik bere burua ispillura begira dago ta Bizargilleren galderak bere artatik ateratzen du*).

**KAXKARIN:** Bai, bai egiña dago: au (*Joxerengatik*) isillik egoteko baldintzarekin.

**BIZARGILLE:** Beldur nauk bizarra kenduaz mututu ez ote zaigun. (*Mutillari*) Txo! Oa aldamaneko sagardotegira ta Iñaxiri esan akiok unetxo batean datorrela. Emen jaun bat zai dagola, beragatik galdezka.

**MUTILLA:** Bai jauna. (*Abituaz*)

**KAXKARIN:** I txiki? nor danik ez esan gero! Bestela garbituko aut. Amerikano bat dala esan.

**MUTILLA:** Nik nagusiaren agindua egingo det. (*Bijoa*)

**KAXKARIN:** (*Jarraituko balio bezela*) Beok lotsagabe ez bestena! (*Bizargillari*) Au Iñaxik ezagutu. Ez orixe. Dana dala gañeko bruxa zuri ori kendu ta orde txamar txukun bat jantzi bear diogu. Or barruan bateon bat izango dezu.

**BIZARGILLE:** Onela errez irabazi nai dezu apustua.

**KAXKARIN:** Ez zera? Sonbrallu bat ere bear du buru gañean. Bestela nola sinis arazi Ameriketatik etorria danik.

**BIZARGILLE:** Berdin zait. Ori ere egingo degu bada. (*Abituaz*)

**JOXE-IGELTSU:** (*Bat-batean*) Edera egin didazute!

**BIZARGILLE:** Alare itzegiten asi zera. Uste nuen...

**KAXKARIN:** Joxe, apusturako bruxa kendu ta txaketa jantzi bear dezu.

**JOXE-IGELTSU:** Iñauteritan al gaude edo zer? Zuek zoratzute araziko nazute.

**KAXKARIN:** Iru bixigu dirala, gizona. Bat zuretzako. Arrazoiarri jarri zaite. (*Bizargillari*) Zoaz txaketa billa ta bidenabar bastoi-makill bat ere ekarri zazu.

**BIZARGILLE:** (*Dijoala parrez*) Norbaiti ezurak austeko ala?

**KAXKARIN:** Amerikano bat eskuan ezer gabe gaizki baidago. (*Joxe bizkarran joaz*) Ez da ala Joxe.

**JOXE-IGELTSU:** (*Asarre antzean*) Bost zekiat! Eskuan ta sakelean ta nunai dirua onena. (*Berriz ispillura begira jarriaz*).

**KAXKARIN:** Izugarri ederki zaude.





**JOXE-IGELTSU:** Ederki ez dakit: izugarri bai!

**BIZARGILLE:** (*Txamar, sombrero tu bastoi batekin agertuaz*) Auek jantzi ezkerro, Joxe, ez dakit ezagutuko zaituenik, bañan bai ez dirala zu bezelako beste bi erri guzian. (*Bruxa kendu soñetik eta txaketa jantzi beziote; gero sombreroa buruan jarri ta bastoia eskura emango diote*).

**KAXKARIN:** Aundi-Mandi dirudizu.

**JOXE-IGELTSU:** Ni beti Joxe-Igeltsu.

**BIZARGILLE:** Don Jose! Ea, pixka bat zabilta. (*Urrats batzuek eman bitza*).

**KAXKARIN:** Ori da ori gizona! Joxe, bixiguak irabazi dizkiogu.

**BIZARGILLE:** Izan ere, nola-ala zure alde partiduak egiten badakizu.

**KAXKARIN:** Ixo, ixo! Norbait dator. Iñaxi baldin bada ben-ben egon. Ni onekin. (*Joxerengatik*) geldituko naiz bazter batean. Eta zuk Iñaxiri galderak egin zaizkiozu.

## SEIGARREN AGERRALDIA

### *Lengak eta Mirabe*

**MIRABE:** (*Atetik*) Sartu al niteke?

**BIZARGILLE:** (*Begiratzeke*) Zaartu? Ez! Emen gaztetu egiten degu gogotik jendea. (*Kaxkarinek asarre ximikoa egin bezaio Bizargilleri*) (*Onek burua okertuaz*) Zu al ziñan, mirabe liraña? Sartu?... zure begiak bai sartzen zaizkidala biotz barru-barruan.

**MIRABE:** Lotsatu araziko nazu. Zu beti berdin.

**BIZARGILLE:** Bai, beti bizargille, aberasten ez naizen bitartean.

**MIRABE:** Zer nai dezu nitaz?

**BIZARGILLE:** Zer? gauza asko. (*Igelsuri*) Ez al da ala on Jose?

**JOXE-IGELTSU:** Ba... (*Zerbait geiago esan nai du bañan Kaxkarinek aoa ixten dio*)

**KAXKARIN:** Ixo!

**MIRABE:** Jolaserako gogotan al zaudete?

**BIZARGILLE:** Ez, ez begira. Lenengo, emengo ispillu aurrean eserita ipiñiko ziñuket ea onela jende geiago etortzen zaidan, bestela laister lurra jo bear det. Gañera, batik-bat on Aundi-Mandi uxatuko zenduke. Bost kuarto besterik ez baidizkit uzten. Ez omen du aurrez-aurre emakumezkoriz ikusi nai ta.

**MIRABE:** Ortarako etorri arazi al nazu? Banoa bada. (*Abitzen dalarik*).

**BIZARGILLE:** Aizu, aizu! Igesi joango zera ba emakume. Ez al dezu ezkontzeko gogorik?

**MIRABE:** (*Gelditu ta itzuliaz*) Norekin?

**BIZARGILLE:** (*Erdi abesturik*) «Galtzagorrineko semearekin»

**MIRABE:** Ba-ba! Zuk illea artu nai didazu.

**BIZARGILLE:** Nere lantegia ori baida.

**KAXKARIN:** Iñaxi! Senargaia ez dezu urruti. (*Joxe-Igelsurengatik*)

**MIRABE:** (*Milikaz*) Orrek amaikatxo ni baño aberats eta ederrago aukeran izango ditu.

**KAXKARIN:** (*Joxeri*) Entzun al dezu?

**JOXE-IGELTSU:** Nere andreak entzungo balu.

**BIZARGILLE:** Ez al dezu ezagutu nor dan?

**MIRABE:** Nundik? Ez baidet egundano ikusi.

**KAXKARIN:** (*Bizargilleri*) Irabazi dizut apustua.

**BIZARGILLE:** Oraindik ez. (*Miraberi*). Ori da Joxe-Igelsuren...

**KAXKARIN:** (*Etenaz*) Ez du balio!

**BIZARGILLE:** Joxe-Igelsuren... semea, Ameriketatik etorri berria.

**MIRABE:** Zer? Matusalen bizar-zuriren semea. Naiko luke ark onelako semerik izan.

**JOXE-IGELTSU:** (*Aserretuaz*) Mingain luze lotsagabea. (*Jo naiez*) Ematen badizut.

**MIRABE:** (*Igesi*) Ai ama! (*Bizargillek eusten dio*)

**KAXKARIN:** (*Joxeri besotik elduaz*) Zaude geldirik gizona!

**MIRABE:** (*Zalaparta baretu dedinean*) Ortara ekarri arazi al nazute.

**BIZARGILLE:** Geiago ere badegu.

**MIRABE:** Gaizto, pikarola! Ez nazute berriz berealakoan arrapatuko emen. Utikan! (*Dijoala*)

**KAXKARIN:** (*Bizargilleri*) Gizona, esan zaiozu bixiguena!

**BIZARGILLE:** (*Laisterka ateruntz*) Iñaxi! Iñaxi! (*Atetik*) Bixiguena aztu zait. Etxekoandreaki esan zaiozu, mandazaienera aristiar bixiguak prexko-prexkoak ekarri dituztela ta guretzako iru koxkor zamarrak erre ditzala. An gerala laister. (*Itzuliaz*)

**KAXKARIN:** Adiskide, galdu dezu aparria.

**BIZARGILLE:** Ala da. Apustu zaleokin jaten ditut nere txanpon apurrak!

**JOXE-IGELTSU:** Toki onean sartu zera.

**BIZARGILLE:** Orain sinisten det ez zaitula ezagutuko zeren emazteak ere.

**JOXE-IGELTSU:** Zuri aztu egin zaizu zer dan 28 urtean elkarrekin bizi iza-tea.



**KAXKARIN:** Usaiean baliteke. Bestela nekez.

**JOXE-IGELTSU:** *(Bat-batean sutuaz)* Ez dakit nork agindu didan bizarra kentzea. Nola joango naiz etxera, itxura ontan?

**BIZARGILLE:** Ortan ez dezu arrazoirik. Obeto zaude, obeki.

**KAXKARIN:** Esango nuke.

**JOXE-IGELTSU:** *(Oso aserreturik)* Ekaidazute nere bruxa ta txapela! *(Txaketa, sonbrallu ta makilla aidean jaurtiaz)* Zer esan bear diot andreaki?

**BIZARGILLE:** Igeltsero bat: tellatutik begiratuta keñurik egiten ez dun gizona andreaken beldur? Tira! Goazen sagardotegira!

**JOXE-IGELTSU:** Izan ere... *(Bruxa ta txapela jantziatz).*

**KAXKARIN:** Ez al zera bada, zure buruaren nagusi ta jabe? Zere ille ta bizarrarena ere bai, orduan!

**BIZARGILLE:** Orain bixigu-jatea!

**KAXKARIN:** Gero gerokoak!

## OIALA BERA

## II. EKITALDIA

*(Joxe-Igeltsuren etxearen sukaldea oi diran tresnaz. «Etxekoandre», mai baten ondoan patatak zuritzen).*

### LENENGO AGERRALDIA

*Etxekoandre ta Kaxkarin.*

*(Dunbada batzuek entzun bitez).*

**ETXEKOANDRE:** Ate joka?... Bai! Aurrera! Aurrera!

**KAXKARIN:** *(Sartuaz. Zertxobat edanean pasia ote dan edo)* Jainkoak dizula gabon andre Kontxes!

**ETXEKOANDRE:** Baita zuri ere. Zu al ziñan Patxi?

**KAXKARIN:** Ni, bai, ni. Gogoz ari zera apart-gertuketan.

**ETXEKOANDRE:** Bearko! Guretzako ez dago beñere atsedetik. Nola egunez, naiz gauez; astegun dala, edo igande, beti beti lana sortzen zaigu nundik edo andik, geinetan zuek gizonezkuok ez estimatu arren.

**KAXKARIN:** Ez da ori egia andre Kontxes. Ikusiko ezkondu nadinean.

**ETXEKOANDRE:** Badezu ordu. Elizak artuko zaitu.

**KAXKARIN:** Andregaia palta orain...

**ETXEKOANDRE:** Ez zaude pixti txarra! Jakin al diteke zertara etorria zeran onuntz?

**KAXKARIN:** *(Patata bat eskuan artuz ta pelota bezela ibilliaz)* Edozeñek daki zuritzen ari zeran patata oriek, orain arte lurpean, illunpean egon dirana. Txixxare, zator, sagu, bare ta beste onelako zomorro askoren laguntzan. Bañan, zu bezelako etxekoandreak eskuetan artzen ditu ta zuritu, garbitu, egosi, erre, prejitu...

**ETXEKOANDRE:** Ta gatz pizka bat...

**KAXKARIN:** ...eman ondoren a zer nolako janaria! Lentxago lur azpian zana.

**ETXEKOANDRE:** Ez, oiek dendan egon dira negu guzian.



**KAXKARIN:** Dendan? okerrago!: illun, zikin, beltz... Laister berriz zartagian, ori-ori, urre kolore. Au da aldaketa. Nork esan biak bat zirana?...  
**ETXEKOANDRE:** (*Asarre-antzean*) Jesus milla bider! Zer berriketa dituzu oiek?  
**KAXKARIN:** «Andreak badizuzte milla matrikulu» (*Abesturik*)  
**ETXEKOANDRE:** Andreak deguna egonarri aundiegia zenbait senar ton-tozko jasatzeko.  
**KAXKARIN:** Andre Kontxes, adierazi nai dizut, alegia, gizona, abere ta gauza bizidun guziak itxuraz maiz aldatzen dirana.  
**ETXEKOANDRE:** Zu bai edariak aldatu zatorrela. Obe dezu jarraitu ezkongai...  
**KAXKARIN:** (*Jaramonik egín gabe*) Arrak biurtzen dira mitxirrika... emeak... ama; txalburuak igel... ta igeltseroak...  
**ETXEKOANDRE:** (*Asarre*) Zer esan bear dezu igeltsuarengatik? Alper ez bestena!  
**KAXKARIN:** Igeltseruak biurtzen dira...  
**ETXEKOANDRE:** Bai noski: nere Joxe ezkongaietan gorri izugarritakoa nun.  
**KAXKARIN:** Errepublikanoa. Masoia.  
**ETXEKOANDRE:** Masoia? Etxe ontan «mas soy yo». Bai orixe. Ez zan beñere elizara sartzen. Orain, bai enetxoa, sarturik daukat: Animetako anaidian, San Antongo kopradian; eta San Pranzizkoren irugarren ordenean.  
**KAXKARIN:** Ori da senarra zeruko bidean ipintxea.  
**ETXEKOANDRE:** Bai. Pobriak gera bañan gure etxean aña kandelik erosten dan etxerik ez dago erri guzian...  
**KAXKARIN:** (*Berekiko*) Oiek prozezioa egiten ditek egunero.  
**ETXEKOANDRE:** Nai badu ta nai ez badu nere Joxek ez du ille bat ere ikutzen nere baimenik gabe.  
**KAXKARIN:** (*Txistu joaz*) Fiu u... uuu!!! (*Berekiko*) gaur entierroa ere ez dek urruti ibilliko emen.  
**ETXEKOANDRE:** (*Eltzeko ura irakitzen dagola oarturik*) Ai nere lapikotxoal Petral oni kaso egiteagatik ea gelditu nintzan aparik gabe. (*Laratzeraz joanez lapiko, eltze ta gañerakoak astindu bitza, gero orobat sua txukundurik*).  
**KAXKARIN:** (*Bitarte ontan berekiko*) Zer gertatu dan esan bearko zioat ba... Itzez ez bada... kantari...

(*Etxekoandre su-ondotik itzulitakoan bertso oiek abesten dizkio «Uso zuriaren leloan»*).

«Bein batean trabenan  
 Iru lagun billdu giñan  
 Jan eta edan, edan eta jan  
 Iruren artean pitxarra edan... etc.»

**ETXEKOANDRE:** Kantari? Zer du gizon onek?  
**KAXKARIN:** (*Itunki*) Gaurko gertaera etxeokandre...  
**ETXEKOANDRE:** (*Jakin naiez*) Zer gertatu da bada?  
**KAXKARIN:** Zer?... (*Sotinka*) Ez dezula ...ezagutuko zure senarra.  
**ETXEKOANDRE:** Nere senarra diozu? Nere Joxe?... Min artu al du? Izan ere igeltseruak beti arrixkoan. Andamiotik erori al da edo zer? (*Gero ta larriago*) Nun da? Bizirik al dago?... (*Aruntz ta onuntz ibilliaz, azkenik alki baten gañera erortzen utziko da*) Ai!  
**KAXKARIN:** Ez da ori emakumea! Bizarra besterik ez diote moztu.  
**ETXEKOANDRE:** Ixtarra?... Jainko maitea, lanerako gauza ez! Nun dago bera?...  
**KAXKARIN:** Lasa entzun zaidazu andre Kontxes. Zure Joxek ez du ezer ausi; ezta miñik artu ere; bizirik dago; ez diote kendu bizarra besterik.  
**ETXEKOANDRE:** (*Lasaturik*) Alare! Auxen da larria eman didazuna. Bañan, bizarra kendu diotela diozu... Nun eta nola ordeaz? neri ezertxore aitatu gabe.  
**KAXKARIN:** Gauza erreza. Badakizu... sagardotegian geundela, Joxe ta lagunok...  
**ETXEKOANDRE:** Elizan egon izan baziñaten...  
**KAXKARIN:** Zaude, zaude, bada... Joxe zigarroa piztutuzera zijoala, iriztata, su-artu dio bizarrak.  
**ETXEKOANDRE:** Itzaltze zun. A zer nolako umea.  
**KAXKARIN:** Nola itzaldu sagardoarekin; usai txarra emango zion, orregatik ea bizar erdia erre zaio.  
**ETXEKOANDRE:** Ez da ori egi osoa izango.  
**KAXKARIN:** Osoa ez! Bizar erdia bakarrik. Lotsagarri zamar gelditzen zan beste erdiarekin eta zer egin degu? Bizargilleren etxera joan eta arpegi guzia garbitu. Ikusiko dezu ikusiko zer nolako gizon polita dagon.



**ETXEKOANDRE:** (*Gezurra dala antzemanaz*) Ezin ditezke itz gutxiagotan gezur geiago esan. Jesuuuus! (*Suturik*) Zoaz emendik aguro! bestela eskalletatik bera joango zera!

**KAXKARIN:** (*Beldurtuaz*) Ez det errurik. Zuri adieraztera bidali naute.

**ETXEKOANDRE:** Ni ez nazu ba Bedaiokoa gauz orrek sinisteko. Ez orixe! Ordiziako kale nagusian jaioa ta mikeletearen alaba. Alajaña! Nere bizkar par egin nai badezu...

**KAXKARIN:** Ezetz andre Kontxes! Zeorrek ikusi dezu.

**ETXEKOANDRE:** (*Bat-batean apalean dagon ur-sallaren billa joan da*) Ikusi? Zoaz emendik aguro! Barrendik bero-bero eginda bazaude prexko-prexko jarriko zaitut. Ajolakabe ezbestena!

**KAXKARIN:** (*Igesi atetik*) Toki onean sartu nauk. Andre bizartsutik iges egik, nola kutsutik...

**ETXEKOANDRE:** Kaxkarin!!

## BIGARREN AGERRALDIA

*Etxekoandre bakarrik.*

*(Silla bere lekuan jarritz geroz  
eta eltzeak zaintzen ditula)*

Neri onelako jokua egin nai! Ume zirtzillen bat al naiz ba! Kaxkarin alper orrek: Tabernan biltzen dira ta jakiña! burutik nastu! Nerea zintzo dabill aspaldian. Ez du gizarajoak kaiku zamarra izatea beste errurik; onagoa, ordea, taloa ta esnea baño. Azkartxeago ala moteltxeago izan, zer ajola zait? Lansaria zintzo ekartzen dit, eta ni naiz etxe ontako jabea. (*Eltze bat astindurik*) Tripaki jate ederra ez badegu bada gaur aparitako.

## IRUGARREN AGERRALDIA

*Etxekoandre ta Joxe-Igeltsu.*

**JOXE-IGELTSU:** (*Bizartegitik irten bezela atean azaldurik apal eta beldurti*) Kontxes!

**ETXEKOANDRE:** (*Arpeja ateruntz itzuliaz*) Ai! gizon bat! Zeñen baimena-rekin sartu zera. (*Sukalde ondotik igitutzeke*) Nor zaitut?

**JOXE-IGELTSU:** Bañan, egitan, ez al nazu ezagutzen Kontxesi?

**ETXEKOANDRE:** Ez da nai ere!

**JOXE-IGELTSU:** (*Besoak bular gañean toleztuak*) Auxen da lanbidea!

**ETXEKOANDRE:** Begira! zoaz emendik! Andre ezkondu baten etxean onela sartu.

**JOXE-IGELTSU:** Ez al dakit ba... Joxe naiz!

**ETXEKOANDRE:** Au da bigarrena! Nabarmen likiskeria! Olakorik! Senarra emen banu ez dakit nolatan ibilliko ziñanean! (*Berekiko*) Utsa ez lioke ezer egingo.

**JOXE-IGELTSU:** Ez lidake miñik emango. Elkarrekin aziak baigera.

**ETXEKOANDRE:** Ez nago amen iñon zorakeriak entzuteko.

**JOXE-IGELTSU:** Kontxes? Ez zaitezela izan orrelakoa. Joxe naizela. Ondo ondo begira zaidazu.

**ETXEKOANDRE:** Zuri? Maskuri arpegi orri! Len bat eta orain bestea. Norbait deitu bearko det. (*Leio aldera joanik*)

**JOXE-IGELTSU:** Bañan Kontxes! nik ez det egin bizarra moztu ta illea bez-tutzea besterik. Gañerantzean lenagoko gizona naiz? Joxe.

**ETXEKOANDRE:** Ez, lenagokoa Kaxkarin zan; zu berriz Kaiku. Esan dizut alde emendik!

**JOXE-IGELTSU:** (*Aserratzan asirik*) Nere etxea da au. Nere lekuan nago.

**ETXEKOANDRE:** Zure lekua laister kartzela izango da.

**JOXE-IGELTSU:** Gertaria beltz ari dek biurtzen. (*Berekiko*) Ba-ez-bada apaldu egin bearko diat. (*Emaztea beste aldean leioan dagola, Joxe su-ondora joanez eltze bat artu beza*) Tripakiak gañera, nere kutizia!

**ETXEKOANDRE:** (*Karraxi bizian*) Ai nere aparia! Lapurra! utzi zazu ori zegon lekuan!

**JOXE-IGELTSU:** Bai laister utzi ta ustuko det; goserik bainago. (*Maiera eramanz*).

**ETXEKOANDRE:** (*Leiotik burua aterarik*) Lapurrak! lapurrak!, emen!, atozte! (*Naigabeak emanda alki batean esertzen da*).

**JOXE-IGELTSU:** (*Etsita*) Baba, ba. Andre onek ez zidak pakean utziko apaltzen. Baniak nere gelara bakarrik apaltzera. (*Eltzeaz gañera kajoi batetik azpil, txali, xardako botilla ta edontzia arturik barrura dijoo*) Or konpon!



**ETXEKOANDRE:** (*Orduan ta karraxi larriagoak ateriaz*) Jesus milla bider!  
Zer egin bear ote dit or barruan? Nere diruak! Nere kutxa-  
ko jantzi ederrak! galak! (*Bat-batean*) Ez da ba ortik irtengo.  
(*Laisterka leiotik bestalderaño joanaz atea giltzaz itxi beza*) Jain-  
koak lagundu nazala! (*Berriz leiora itzuli ta oiuka*) Onera!  
Galdua naiz! Aguro, aguro! Atozte!

(*Egñial onen ondoren kemen guzia aitu zaio  
ta ostera beere burua eser-leku gañean  
erortzen uzten du.*)

## LAUGARREN AGERRALDIA

*Etxekoandre, Joxe-Igeltsu (Gela barrutik)  
eta Aundi-Mandi.*

**AUNDI-MANDI:** (*Albatan, arnasa-estututa eldurik*) Zeer daa? Zer? Oiu... ak  
emendik ze...tozen.

**ETXEKOANDRE:** (*Asperenka*) Lapurra! Ai! ai!

**AUNDI-MANDI:** (*Atetik beldurrez*) Nun?

**ETXEKOANDRE:** Or, or. (*Joxe sartu dan gela siñalaturik*)

**JOXE-IGELTSU:** (*Barrendik indartsu atea joaz*) Dan! dan! dan!

**AUNDI-MANDI:** (*Aurrena atzekoaldera egin ondoren gero ausarturik*) Ori ez da  
lapurra.

**ETXEKOANDRE:** Baietz, lapurra! Nik ikusi det sartzen-da. Ori aztia da.

**AUNDI-MANDI:** Ezin diteke lapurra izan. Ta ni agintari naiz aide nagusi  
bezela, bañan ez det nai aztikeritan sartu nai.

**JOXE-IGELTSU:** (*Barrendik berriz*) Dan! dan! dan!

**ETXEKOANDRE:** (*Igesi itzuliaz*) Ai! ai!

**JOXE-IGELTSU:** Gelditu bedi agintari jauna, iriki beza atea.

**AUNDI-MANDI:** (*Lasago*) Nik ezagutzen det izkera-soñu ori.

**ETXEKOANDRE:** Nik ez ba.

**AUNDI-MANDI:** Emakumezkoak beti ametsetan bizi zerate.

**ETXEKOANDRE:** Ni ametsetan eta lapurra or barruan.

**JOXE-IGELTSU:** (*Berriz atea joka*) Atea zabaltzeko.

**ETXEKOANDRE:** (*Aundi-mandiri besotik elduta*) Ez zabaldu ez!

**AUNDI-MANDI:** Lapur ala azti dalako ori nola sartu zaizu etxean?

**ETXEKOANDRE:** (*Txoko batera eramanez*) Ba, ementxe patata oiek zuritzen  
nengolarik Patxi Kaxkarin etorri zait milla berriketakin.

**JOXE-IGELTSU:** Egia, egia!

**ETXEKOANDRE:** Ai!

**AUNDI-MANDI:** Jarrai zazu emakume! agintariaren onduan zaude.

**ETXEKOANDRE:** Ura joan orduko or dagon beste ori sartu zait etxean  
nere senarra dala esanaz. Inñolaz ere ezin bialdu izan det.

**JOXE-IGELTSU:** Noski, nere etxean nago-ta.

**AUNDI-MANDI:** Arrigarria da benetan gertatzen dana. Zer geiago?

**ETXEKOANDRE:** Geiago?... lotsagabea tripaki kaxuela artuta ez zait ba or  
barrura jatera joan. (*Negarrez*)

**JOXE-IGELTSU:** Jan ditut bai. Oso ondo maniatuak zeuden.

**AUNDI-MANDI:** Orain postria eskatzen dizu. Gero ta gutxigo aditzen det  
jolasketa au. Atea iriki ta ikusi zagus nor dan barruan  
dagona.

**ETXEKOANDRE:** (*Izuturik*) Ez! ez! Igesi badoa eramango dit ostutako  
guzia.

**AUNDI-MANDI:** Nik ez dakit baña nola asmatu. Zaude emen zai aguazil  
billa noan bitartean.

**ETXEKOANDRE:** Ez jauna, ez; gelditu bedi. Ikaratu egiten naiz bakarrik.

**AUNDI-MANDI:** Ortarako zerbait egin zagus or dagon gizon ori senarra  
dezun ala ez jakiteko.

**JOXE-IGELTSU:** Ori da arrazoa.

**ETXEKOANDRE:** Ea bada.

**AUNDI-MANDI:** (*Gelako ateruntz joanik itzal aundiz*) Zu or barruan ezkuta-  
tua zaudena, zerana, zerala: lapur ala azti, gaizkille ala ongi-  
lle ni erriko agintariaren aurrean azaldu zazu andre onen,  
legezko ta eliza-bidez, senarra zeran edo ez.

**JOXE-IGELTSU:** Ori atea irikitzen badezu azalduko det.

**ETXEKOANDRE:** Ez iriki, ez iriki!

**AUNDI-MANDI:** Ez det oraindik irikiko. Zaude pizka bat isillik. Zu! (*Joxe-  
ri*) entzun ondo galdetzera noakizuna: andre onen egitazko  
gizona baldin bazera esan zaidazu senar-emazteak elkarren  
artean bakarrik dakizuten zerbait.

**ETXEKOANDRE:** (*Asarre bizián*) Oiek umekeriak dira! Neregatik zerbait  
esaten asten bada, emendik banoa!

**JOXE-IGELTSU:** Nik agintariak galdetzen didana besterik ez det erantzungo.

**AUNDI-MANDI:** Tira ba. Esan zazu zure emaztea andregaitan nun eta  
nola ezagutu zenduan. Ori jakitea aski degu.



**ETXEKOANDRE:** (*Bizi*) Ez enetxoa! nai ditun gezur guztiak esateko. Ala-jaña!

**AUNDI-MANDI:** Entzun patxadan emakumea. (*Joxeri*) Beraz, nun ezagatu ta nolatan ezkondu ziñan andre onekin?

**ETXEKOANDRE:** (*Karraxika*) Ez det nai! Ez, ez!

**AUNDI-MANDI:** (*Aoa eskuaz jtxiez*) Ixo! (*Joxeri*) Asi zaitte, asi!

**JOXE-IGELTSU:** Ez dakit bada, garai artan egunero sagardotegian izaten giñan.

**ETXEKOANDRE:** Orain ere maizago joan oi dira elizara baño.

**AUNDI-MANDI:** Jarrai beldurrik gabe.

**ETXEKOANDRE:** Beldurra ta lotsa izan balu ez zan besteren etxean sartuko sartu dan bezela.

**AUNDI-MANDI:** (*Etxekoandrerri*) Berritsua izate zer ote da! (*Igelturi*) Aurre-ra!

**JOXE-IGELTSU:** Ez nuen ezkontzeko asmorik, baño sagardotegi artara nere Kontxes gabero sagardo billa etortzen zitzaigun eta...

**AUNDI-MANDI:** Baita, baita! ...antzematen diot...

**ETXEKOANDRE:** Ajola gutxi likiskeri orrek dionagatik.

**AUNDI-MANDI:** Aurrera, aurrera! Ea atea iriki dezu.

**JOXE-IGELTSU:** ...sagardo-billa etortzen zitzaigun eta sartzen zan bakoitzean begiratu ta kiñu egiten zidan.

**ETXEKOANDRE:** (*Asarre bizian*) Gezurti! gezurzulo" Ez da ori egia! (*Negarri emanaz*)

**AUNDI-MANDI:** (*Parrez*) Ara! ara! Ja! ja, ja! Segi! segi! ta gero?

**JOXE-IGELTSU:** Naikoa esan dizut. Andik aurrera ez esatekoak dira.

**AUNDI-MANDI:** Zer bada?

**JOXE-IGELTSU:** Zer bada! (*Aldaketa aundia egiñaz*) Zeorri ere gona kontutan naiko jakitun zera.

**AUNDI-MANDI:** (*Arriturik*) Ni, gona kontutan?

**JOXE-IGELTSU:** (*Zakar*) Bai jauna, amar urtean ibilli ziñan beintzat orain alkatearen emazte danaren atzetik.

**AUNDI-MANDI:** (*Asarre*) Ni? atzetik!

**JOXE-IGELTSU:** Zu, bai, zu! Ta beste amar urtean Donostiko damatxo baten atzetik.

**AUNDI-MANDI:** (*Orain malkoak dariola dagon Etxekoandrerri*) Entzuten al dezu? Kontxes? Gizon gaizkille orren gezurrak. Ori lapur lotsagabe bat da.

**JOXE-IGELTSU:** Zu izango zera, neskamiarekin ezkontzera omen zoaz eta.

**AUNDI-MANDI:** (*Amorro bizian*) E! Neri arpegira lotsagabekeri oiek esaten ausartu! Txistua botatzea merezi dezu arlote nabarmena ez bestena. Ijitokumea! Ortik aterata neronek kartzelara eramango zaitut.

**ETXEKOANDRE:** (*Malkoak legortuaz*) Ez dakit zertan bukatu bear dun istillu onek.

**AUNDI-MANDI:** Zertan?... (*Zalapartan atea iriki az Joxe-Igeltu besotik elduta atera beza*) I al intzan? arlote!, igeltsu-zikintsu! (*Masallean joaz*) To! Ori irabazi dek bizarra kentzeatik.

**ETXEKOANDRE:** (*Karraxika*) Ai iiiii! (*Aundi-mandiri aurrez-aurre erasotzen diola*) Berriz ikutzen badezu nik erantzungo dizut. Jakin zazu gizon ori senarra dedala!...

**AUNDI-MANDI:** Badakit, bai. Ez du beste gauzarik izatea merezi.

**ETXEKOANDRE:** (*Oiuka*) Zu zeu mutilzar likiskeria! aundi-mandi beti agintari!! arrotutz!! aundi-nai!! zekena!!! (*Berebiziko ardalla artean senar-emazteak Aundi-mandiren gañera erori bitez, illetatik eusterakoan peluka kentzen diote burusoil azaldu arazi az*)

## AZKEN AGERRALDIA

*Lengoak, Bizargille ta Kaxkarin.*

**KAXKARIN:** Au dek ixkamilla!!

**BIZARGILLE:** (*Burrukalariak berezituaz*) Errendi! errendi!! Pakeak egin itzazute komeria trajeria biurtu baño len.

**KAXKARIN:** Trajeria? trajetan izango ditek kalte.

**BIZARGILLE:** Zer gertatzen da emen?

**ETXEKOANDRE:** Zera aundiki orrek nere senarra jo egin duala.

**KAXKARIN:** Orrek ez zion emango zartako aundirik.

**BIZARGILLE:** (*Igelturi*) Zu ain asarre Joxe?

**JOXE-IGELTSU:** Zurea da errua bizarra kendu didazulako.

**BIZARGILLE:** Ez zazula kontu ori aitatu.

**KAXKARIN:** (*Paketsu*) Ez da ezer, bakoitza bere etxera dijoala ta kito!

**BIZARGILLE:** (*Aundi-mandiri*) Agintari jauna, zu emen? Utzi zaidazu peluka ondo jartzen. Beti nago zuri laguntzeko.

**AUNDI-MANDI:** (*Mindurik*) Toki txarrera etorri gera. Au ez da giza-lekua; au basurde-lekua da: arra ta emea.



**ETXEKOANDRE:** Zu berriz artza aundi bat. Illea ere besterena dezu-ta.  
(*Ostera elkar erasotzeko gertu daude baiñan Kaxkarin eta Bizargillek eragozten diote*)

**BIZARGILLE:** Geldi!

**KAXKARIN:** Ezti! atzera!

**BIZARGILLE:** Zer esan bear dute errian emen gertatu dana jakin dezate-nean?

**AUNDI-MANDI:** Nik alkateari baituko diot guzia.

**ETXEKOANDRE:** Obe! Arrazoia nori ematen dion ikusiko degu. Zu sartu zera besteren etxean.

**AUNDI-MANDI:** Ori da eskerrona ematea. Kaletik zear ninjoala oiu ta karraxiak entzun ditut. Norbaiti txarkeria egiten ari zitzaizkiolakoan laguntzera etorri naiz. Ezin diteke jende txearekin sartu. Ikusia dago. Nere izen ona oinperatu didate.

**KAXKARIN:** Ez da orrenbeste gizona: pelukan bakarrik egin dizute kalte pizka bat. Ez da oñetako gauza, burukoa baizik.

**BIZARGILLE:** Kaxkariñek ondo esan du. Obe dezute gauza isilik bukatu. Ez dezala iñork ezer jakin.

**ETXEKOANDRE:** Neregatik ez.

**JOXE-IGELTSU:** Andreak ez badu itzegiten nik gutxiago.

**BIZARGILLE:** (*Aundi-mandiri*) Zer dio gure agintariak.

**AUNDI-MANDI:** (*Oso ben gñballa jantzi ta abituaz*) Agintariak azken itza bere!

**JOXE-IGELTSU:** Ni ez naiz iñorekin aserratu.

**ETXEKOANDRE:** Ni senarraren alde bakarrik atera naiz.

**KAXKARIN:** (*Irritsu*) Ni berriz guzión adiskide naiz.

**BIZARGILLE:** Ta nik... bizarra edozeñi kentzen diot...

**ETXEKOANDRE:** (*Ekiten diolarik*) Beraz zu zera nere senarrari bizarra kendu diozuna?

**BIZARGILLE:** Ez, ez! nere guraize ta bizar-labanak...

**ETXEKOANDRE:** Zoazte emendik alper!, naspillazale! mozkille. (*Berriz iskamilla sortzen da ta senar-emazteak erratza ta makill bana arturik arrotzai erasotzen diote*)

**JOXE-IGELTSU:** (*Kaxkarinegatik*) Alper orrek du errua guzia.

**KAXKARIN:** (*Igesi joanez*) Eskerrak orriak kaskua bezin ariñak ditudala!

**BIZARGILLE:** Bai ala da. Guzia orren alperkeriak sumatutako mozketagatik.

**KAXKARIN:** (*Atetik*) Ez, ez! Zure lanagatik.

**ETXEKOANDRE:** (*Samurkiro*) Bizar ederra ez bazun ba nere tontozkok.

**JOXE-IGELTSU:** Ezagutzen al nazu? (*Gerritik eldu ta elkar begiraturik*)

**BIZARGILLE:** (*Jendeari*)

«Gizon bizarpeitutik  
eta

Emazte bizartsutik

Iges egik

Nola kutsutik»

OIALA BERA